

Andrazkoen Arratia A taldeak ligako lehen partidu biak irabazi ditu eta bigarren postuan dago

Hilaren 7an hasi eban Arratia Ak ligoa Urbietan eta 2-1 irabazi eban ligako lehen partidua Berriozar talde nafarraren kontra. Bigarren partidua hilaren 14an jokatu eban etxetik kanpo Oiongo Oyonesa talde igon barriaren kontra eta 0-1 irabazi eban. Partidu bi jokatuta jokoan egozan sei puntuak eskuratu ditu Igorreko taldeak eta bigarren postuan dago liga hasikera honetan. **14. orrialdea**



Gorbeia Suzien mendi lasterketea hilaren 28an

Urri lehenengoaren 28an izango dira Gorbeia Suzieneko lasterketak: Gorbeia Suzien Skyrace 32 kilometrokoa eta Gorbeia Suzien 21 kilometroko lasterketea. Hurrengo egunean umeen lasterketea izango da. Gorbeia Suzien Skyrace, World Series-en barruan dago, hau da Munduko Kopan.

Lasterketen ostean, Esti eta Olatz kantarien emonaldiak, Jose-lontxos Txarangak eta gauean DJ bik musikaz beteko dabe herria.

Lasterketea baino zortzi egun lehenago, hilaren 20an, Patagoniatik zeharkaldiaren gaineko berbaldi proiektinoa egingo dau Sonia Rodriguezek Igorren. **14. orrialdea**



Merkartea, merkadua eta euskal jantzak



Arantzarte Dantza Taldearen 50. urteurrenean, Arteako Udalak errekonozimendua egingo deutse fundatzaileei. Hilaren 21ean izango da Merkartea. Azokeari jagokonean, ekoizleentzako 20 salmahai egongo dira eta 18 artisauk be salduko ditue euren produktuak frontoian. Taloeak, *photocall*ak, jantza emonaldiak eta erromeriak osotuten dabe egitaraua. **5. orrialdea**

IGORRE

Giza mosaiko erraldoia egingo dabe Igorreko Inbiu Egunean


Urri lehenengoaren 21ean izango da aurten, Igorreko Euskerearen Inbiu Eguna. Aurtengo erronka euskerearen aldeko giza mosaiko erraldoia egitea da, alkarte, ikastetxe eta biztanleen partaidetzeagaz eta Zuztertxu eta galtzagorrien laguntzeagaz. Eingo eta Orkresta Elektroturen musikeak girotuko dauz kaleak. **7. orrialdea**



ARRATIA

Arratia BHI Institutua Hezkuntza Proiektua barrizatzen dabil

Arratia Institutuan Mundugintzan dabiz. Ikaslea helburu, aniztasuna eta inklusioa ikur, eta euskerea oinarri hartuta, jakintzagaiak eta proiektuak buztartu gura dabez Hezkuntza Proiektua eguneratzeko, kalidadezko alkarbizitza sustatzeko, ondoizatea eta osasuna bermatzeko eta digitalizazio arduratsua bideratzeko. **8. eta 9. orrialdeak**



UBIDE

Garagardao artisauak eta kontzertuak Ubiden

Ubidestroki Kirol eta Kultura alkar-teak antolatuta, Ubier, Ubideko garagardao azokea urri lehenengoaren 21ean, zapatuan, izango da herriko plazan. Garagardao artisauak, lehiaketa bat eta bost talderen kontzertuak egongo dira arrastian hasi eta gaua ondo sartu arte.

Baobeer, Garagart eta Scimmia garagardaogileen produktuak dastatu eta erosi egin ahal izango dira han. Kontzertuak, azokeagaz batera hasiko dira, 17:00etan. Magufada, Meison, Kohatu, BSRT Kolektib eta I+D eta Wary taldeek joko dabe Ubiden. Jatekoa be egongo da salgai food truck baten. **5. orrialdea**

ZEURE BERBEA

Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kezak, eskeronak, hausnarketak, burutazioak edota ideak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleei zuen ikuspuntua helarazoteko. Argitaratutako derrigorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz. Hauxe helbidea:

Zertu Kultur Elkartea
BEGITU aldizkaria
Herriko Plaza 24
48142 Artea
Edo, helbide elektronikoa honetara bialdu zure gutuna:
begitu@begitu.eus

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu 15 lerro baino gehiago idazterik. Izena, telefonoa eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUK eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: begitu@begitu.eus helbidera.

Zirhika

ARTELATZ ETA TXARAKIN

Hitanoagaz hasteko aholkuak (LII). Kale berbakunea sustatu guran

ESKOLEA

- Hi!
- Aspaldiko!
- Nondik **hator** ba?
- Umea eskolara eroan **joat** ointxe!
- Zenbat urte **jekozak** ba?
- Urte bi egin behar **jozak** urrian!
- Ez **eistek** esan!
- Urte bi!
- Halantxik **dok**!
- Horreek gorantza **jozak** hi!
- Bai, baina gu beherantza ez, e!
- Ez jauna, ez!
- Bueno hi! behinik behinean kuadrillako bazkarian ikusiko **gozak** datorren astean, **eztok**?
- Hori **dok** eta!

ERETXIA

Rebecca Cheptegei gogoan

Diskriminazioa dagoala ukatzen eta andrakanako eskubide urraketarik ez dagoala esaten daberen personak egon bitartean, androk, andra izate hutsagaitik modu lazgarrian hiltzeko arriskuan gagoz; kasu honetan eta beste askotan ikusi daitekeen legez.

Rebecca Cheptegei eliteko atleta zan, eta palmares handia eukan: Donostiako Nazioarteko Krosean laugarren postua lortu eban 2011n, eta Zornotzakoan bigarrena 2014an. Oin, Parisko Olinpiadetan parte hartu izan dau. Bizi proiektu propio eta arrakastatsua eukan.

Kathrine Switer eta Roberta Gibb atletek, aurreko mendeko hirurogeiko hamarkadan, atek zabaldu eutsiezan andrazkoen parte-hartzeari lehiaketako lasterketan.

Konkista horreen oihartzunaren pean, 1990ean Lilatoia jaiotzen pean, 1990ean Lilatoia jaiotzen pean.

Sasoi haretan, andrek kirola egiten baeben be, batez be espazio zarratuetan egiten eben. Kalera galapan egitera urtetan ziranean (kirolik merkeena), iraindu egiten ebezan.

Lilatoien helburua, andrak gimnasioetatik ateratea, kaleak hartzea, beste lehiaketa modu bat sortzea, eta lasterketetan andren parte-hartzea bultzatzea eta normalizatea zan, lasterketetan gizonezkoek jasoten dituen sari bardinak jaso, eta abar. Azken baten, edozein adinetako andren artean kirol praktika sustatzea eta genero ekidadetik ikusgarritasuna emotea.

Lehen urte hareek, gatak izan ziran. Egoera konprometidu askori aurre egin behar izan jakon, babes barik eta aurrerexi guztien kontra.

Gaur egun, ekimen hura erreferente bihurtu da: lasterketea, korrikalari guzti-guztiena da, baita, bidearen bazterretan ha-

LILATOI TALDEA

reek animetako pilatzen diran personena be, eurek babesten dituelako korrikalariak, eta sikiera egun horretan, zaintza lanen ardura hartzean dabelako. Korrikalariena, animetan doazenena eta zelan ez! ibilbideagaz batera doazen batukadarena; haren inguruan eregiten joan da konplizidate sare osoa eta.

Benetako bardintasun eraginkorraren alde aurrerapausuak egiten gabiz.

Ha-ta guzti be, atzokoa eta gaurkoa bat datoz: androk ordena patriarkalaren eraginpean gagoz, eta ordena horrek –eta zelan!– jarraitzen dau ezartzen non eta zelan egon behar garan.

Tristea da holango gertaera tragikoak gertatzen diranean bakarrik hastea posizionamentu bat hartzean, aktibetan, berba egiten... Ezin dogu onartu. Guztiok kontzienzia eta ozen esan behar dogu: Ezta bat gitxiago be!

Gizon batzuei andren ahalduak segurtasunik eza, inpotentzia, frustrazioa, gitxiagotasun konplexua... eragiten deustie, eta modu oldarkorrean eta mugarik bako indarkeriagaz jarduten dabe andren kontra. Kasu askotan, honetan izan dan moduan, hurbilen dituenen eta maite ei dabenen andren kontra.

Eraso matxista guztiak deuseztatzeko bidea da aldarri feministea.

Beste marko maskulino bat, asertiboa eta arduratsua behar dogu. Hurrengo belaunaldiak islatuta sentiduko diran beste erreferente batzuk erakutsi, defendidu eta eskainiko dituna.

Matxismoak hil egiten dau, hil egiten gaitu.



LUMATUTEN

URTZI
BARRENETXEA**Yo quiero bailar,
toda la noche**

Bilboko Aste Nagusia. Txupinazora hurbildu gara, ikusi beharrekoa dala-ta. Badira urte batzuk honetarako ohitura daukagula. Plaza Barrian eta tertulia trunkilean hasi dogunez arrastia, ia berandu ailegau gara Arriaga inguruetara. Itziarren pregoia ondo entzun ez badogu be, transmitidutako emozinoa danoi ailegau jaku, eta andratzea balkoiratutakoan danok hasi gara saltoka. Gora Mari Jaia!

Esango geunke urterik urte gero eta jente gehiago dagoala ekitaldian. Baten batek komentatu dau gaztelania edo euskera ez dan hizkuntzaren bat entzutea ez dala ja bape be harritutakoa. Ekitaldia amaitutakoan, leku lasaiago batera joatea ebatzi dogu, txosnak zabaldu bitartean.

Luzatu jaku kontua antza, ze Arenalera hurreratu garanerako ondo berotuta dago lekua. Jai herrikoien nukleoko zein gune aukeratu ebazterako orduan, erispide

euskalzalea nagusitu da. Goazen ba, giro euskalduneko txosnetara.

Begiratu, aiko hemen bat, bokata itzelakaz.

Afariaren zain, hirugarren-laugarren abestirako hasi gara komentetan, ia noz entzungo euskal abestiren bat. Esan eta segiduan, txistu eta danbolina! Baten batzuk biribilketan hasi dira, beste batzuk saiatuten, eta atzerritarrak argazkiak ateraten. Minutu pare baten barriro aldatu da giroa eta gaztelaniazko fauna agertu da barriro: behor basatia, azeriemea... Itxoin, *Eperrak badituzu?* bersino elektronikoa? Bai, baina abesti erdian ebagi egin da eta *Yo quiero bailar toda la noche* entzunarazo deusku Djak. Esan lei ez daukala oso argi norantza jo.

Purrustadaka hasi nazanez, nostalgikoa ete nazan dinosta lagun batek, Hertzainak eta enparauak ipinteak ez daukala zentzurik gaur egun, eta abar... Ez deusat dana ondo entzun Raffaela Carra topera dabilelako.

Nostalgia, izatez, bueltau ezin dan egoera baten faltak sortutako sensazioa da; ulertutakoa baina inora ez doana. Nire kasuan gehiago da aukera galdu batek sortutako egonezina: euskerazko abestiak megafonia bidez milaka personengana ailegetako aukerearena, askorentzat urteko abagune bakarra. Hori bai, ados gagoz kontu baten; nor gara gu zeozer esateko urte osoan lanean dabizan konparsei.

ZERTZEAN



IRANTZU LEKUE



BEGI TXINDORRA

Adi begiratu ezker, hasikeran bandera edo oihal bat irudianak, sakonerea hartu eta hiru dimensioetako espazioa ikusten da, eta paraje honetan zein handia dan espazio hori sentidu daiteke. Dimensio bietako argazkian plano berean agertzen diran zeruak, basoak eta dunaren hareak, gizakia txiki-txikia dan espazio baten dimensio handiak dira. Itxurea eta izana bat ez diralako eta itxurea ederra izan arren, izana oindino ederragoa izan daitekelako. Arcachongo badian dagoan Pilat dunaren argazkia da eta Belen Pintok bialdu dau.

Aurtengo Oporretako Argazki Lehiaketarako argazkiak bialtzeko hamar egun be ez dira geratzen, hilaren 25ean amaitzen da epea eta. Aurrekoa zenbakian Arkaitz Bilbaok Urdaibaiko argazkiagaz, eta oingoan Belen Pintok egin daben moduan, Argazki Lehiaketan parte hartu gura badozu, bialdu lehenbailehen zure argazkiak, hiru gehiezez, begitu@begitu.eus helbidera.

Irabazleak landetxe baten astegoi pasan izango dau saritzat.



Gorosti
LORAZAINTZA

Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa

Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostisl.com

BEER & EDARIAK
Guillermo 659 48 28 39

Fernando 699 29 67 17
Eduardo 647 72 96 24

Arkaitz 677 46 40 91
Golder 666 58 20 06

Pozuetz poligonoa, 10 LEMOA • beeredariak@gmail.com

agoa
hagin klinika

Ortodontzia
Implanteak
Estetika

Marina Urigoitia Aldekoa
Odontologia

Bidebarri 1. behea
48140 Igome-Bizkaia
T. 94 631 50 39
Itziarreta Zerbaita 101
R.P.S. 31/06

ARTEA

Arantzarte jantza taldeari errekonozimentua egingo jako Merkartera egunean

Merkartera, azoka zabala eta izen handikoa izateaz gainera, baserri giroko euskal tradizioak, bizirik eta eraberrituta, Arteako erdigunera ekarteko eguna izaten da.

Erredakzioa

Inguruko ekoizleak, artisauak eta euskal musikea dira egun honen ardatzak eta aurten, Arantzarte jantza taldearen 50. urteurrenean, taldearen sortzaileei errekonozimentua egingo deute Udalak omenezko ekitalditxo bat egaz. Iluntzean emonaldia egingo dau Arantzartek.

Frontoiko parkinean eta aurrealdean, 20 salmahai egongo dira ekoizleentzat, batez be baserriko produktuak salduko. Eta frontoi barruan, artisauentzat 18 postu. Caritasek eta Ibilaldiak be salmahaia izango dabe euren produktuak eta *merchandisinga* salduko. Taloak be, frontoi aurrean egongo dira salgai.

Umeentzako jostailu artisauak eta *photocalla*

Artisau batzuek lanean jardungo dabe eta euretako batek, umeentzako jostailuak egiten dituan Jordi Navarro Piquék, tailertxoak ipiniko dau. "Bera Kataluniatik dator baina hartu-emonia dauka Arteagaz Musika Eskolearen bitartez. Izan be, musikaria da Navarro eta Kataluniako Esparragerako eskoleagaz Arteara hainbat bider etorri izan da, eta gustau jakon herria. Bere denpora librean umeentzako jostailuak egiten dauz, tailertxo bat dauka, eta esan euskun ea etorri ahal dan erakusketara eta esan geuntsan baietz" azaldu detuso BEGITURI Gorka Beitia zinegotziak.

Aurten bigarrenez, Beitiaren esanetan igaz harrera polita euki

ebalako, jenteari eskatu jako, ahal bada, baserriar jantzita joateko. Hori bultzatzeko, igazko moduan, baserriar jantzita doazenei, argazkia *photocallean* doban atera eta bialduko jakie etxera. Areatzako Zazu argazkilaria egongo da argazkiok egiten frontoiko udaltekote atean, 11:00etatik aurrera.

Horrezaz gainera, 11:00etatik 14:00etara, Arratia Garbia kanpainea be egongo da. Informazio puntua eta materialen banaketea egingo dabe mankomunitatekoek eta 11:30ean, umeentzako birziklatze herri-kirolak egongo dira. 12:30ean, hondakinen karakterizazioa egingo da udaletxe ondoan.

Arantzarte

Aurtengo Merkarteraren berezitasuna izango da Arantzarte jantza taldeari bere 50. urteurrenean Arteako Udalak egingo deusan errekonozimentua. Eskerrak emonez testu bat irakurri ostean, taldearen fundatzeileei oparitxo bana emongo jakie plaka bat egaz. Arteako Bitor Iñaki Gotik, Karmele Artetxek, Ander Artetxek, Aitor Artetxek, Goreti Ateagak, Javier Gotik eta Telesforo Buztinza, Imanol Bernaola eta Jose Alberto Aranaren familiek jasoko dabe errekonozimentua, Arantzazuko fundatzaileakaz batera.

Taldeak, jantza emonaldia eskainiko dau 21:00etan plazan eta gauean, 23:30etik aurrera erromeria egongo da Lehian taldeagaz.

Arteako jaietan



herriko jaiak eta Merkartera, hurrengo astegienean edo jaietatik hamabost egunera. Artean, presoen aldeko konzentrazioa Merkartera egunean egiten da.

Euskal presoen aldeko batzordeak deitutako konzentrazioa egongo da Merkartera egunean

Erredakzioa

Arteako jaietan etxera lemapean, euskal presoen aldeko eskubideak aldarrikatzeko urri lehenengoaren 21ean, 13:00etan, konzentrazioa deitu dau Presoen Aldeko Arteako Batzordeak.

Aurreko egunean be egongo da aldarrikapen beste ekintza bat, jai girokoa berau, musikea jana eta edana dakarrena. Euskal pre-

so politikoen aldeko Kantu terraza izenpean, Arratiako kantariak emonaldia eskainiko dabe, mikro irekia egongo da gura dauanak kantuan egin edo berbea hartuteko. Mojitoak eta mokautxoak be eskuragarri egongo dira 19:00etatik aurrera.

Jaietan herri gehienetan egiten dira presoen eskubideen aldeko ekintza edo konzentrazioak. Arteako jaiak zati bi izaten ditue,

UBIDE

Garagardao artisauak eta musikea Ubier azokan

Ubidestroi Kirol eta Kultura alkarteak antolatuta, Ubier, Ubideko garagardao azokea egongo da urri lehenengoaren 21ean, zapatu arrastian, 17:00etan, plazan. Garagardao artisauak, lehiaketea eta kontzertuak ez dira faltauko Ubiden.

Erredakzioa

Baobeer, Garagart eta Scimmia garagardaogileen produktuak dastatu eta erosi egin ahal izango dira azokan. Giroa animetako, lehiaketa bat proposatuten dabe antolatzaileek: Ubier edalontzi bat garagardao nok lehenago edan. Gehienez 10 personak hartu ahal dabe parte norgehiagokan. Jatekoa be egongo da, Tic Tac Nam food truck-ean salgai.

Garagardoaz gainera, musikea izango da Ubier jaiaren beste ardatza eta bost taldek eskainiko dabez kontzertuak: Magufada, Meison, Kohatu, BSRT Kolektiv eta I+D eta Wary taldeek, hain zuzen be.

Soul, metal eta musika elektronikoa

Ubierreko kontzertu eskaintza ugaria da, sano estilo desbardinatoko musikea eskainiz. Holan, esate baterako, Magufada, bersino talde bat da, musikea interpretatu egiten dauan taldea. Errepertorio propio eta ugaria dauka, cumbia, punk zein soul-a nahasten ditua. Emonaldietan instrumentuak trukatu egiten ditue eta kantu bakotxaren esangurea agerian ipinten eta egoki adierazoten saiatzen dira, unean uneko gertaerak kontuan hartuz.

Kohatu, Berizko rock metal taldea da. Joseba Romerok (gitarra

eta ahotsa), Martin Sarasketak (bateria), Xabier Gutierrezek (bajua) eta Asier Alejok (bajua) osotuten dabe. Hiru disko ditue kalean, *Kohatu* (2016); *Oskolak* (2020) eta *Anabasari deiadar* (2024). 2018an, Dimetal Fest-en jo eban.

BSRT Kolektiv, musika elektronikoa egiten dauan taldea da eta techno, drum and bass, house, trance eta EBM estiloetako musikeagaz ipiniko dau jentea jantzan. BSRT Kolektiv taldearen sustatzaileak lau musikari dira: Raperu (bertsolari ohia, oin rap abeslaria Amooma taldean), Uki (DJ, Akerjenbe Sound System eta beste kolektiboetako kidea), Imanol (bateria, Amooman eta Ertz taldeetan), Torralba (sintek eta produktorea, lehen baju-jotzailea: Guda Dantza eta Afrika Bibang-egaz).



DIMA

Urtxintxak eta Dimesten-ek Astialdiko begirale Ikastaroa eskainiko dabe Diman

Erredakzioa

Hezkuntza ez-formalean eta aisialdian hezitzaile lanetan jardun gura dabenezkat Urtxintxa Eskolak, Dimesten-egaz batera, Astialdiko begirale Ikastaroa eskainiko dau 2024-2025 ikasturtean. Ikastaroak 150 ordu teoriko eta 160 ordu praktiko izango ditu.

Parte hartzaileek aisialdi hezi-

tzailea eta euskalduna sustatzeko agente aktiboak izateko gaitasuna eskuratuko dabe ikastaro honegaz. Teknikak lantzeaz gainera, talde lanean, sormenean eta ikerketa lanetan be trebatuko dira. Ikastaroaren prezioa 470 eurokoa da, Diman erroldatutakoentzat 270 eurokoa. Matrikulazioa Urtxintxa Eskolaren webgunearen bidez egin daiteke.

BEDIA

Gipuzkoatik Boli Kostara tandem baten gainean egindako bidaiaren proiektzinoa Bediako liburutegian

Bediako Udala, urtero lez, atxikitu da Europar Mugikortasunaren Asteko kanpainara eta urri lehenengoaren 19 eta 20an, eguazten eta eguen, hurrengo hurrengo, hainbat jarduera antolatu dauz mobikortasun jasagarria bultzatzeko.

Erredakzinoa

Europako Batzordeak "Isuririk gabeko mugikortasunaren alde" aukeratu dau aurtengo Europar Mugikortasunaren Asteko gaitzat. Kanpainaren helburua, automobila erabilteak osasun publikoarentzat eta ingurumenarentzat dituan ondorio txarren inguruan sensibilizetea da. Bediako Udalak, zero isuriko mobikortasuna bultzatzeko sensibilizazio ekintzak antolatuten ditu urtero

eta aurten be batu da kanpainara. Bizikletan egindako zortzi hilabeteko bidai baten proiektzinoak, Udalak planteautako kirol erronka bete dabena saritzeak eta martxa nordiko ikastaro batek osotuten dabe Bediako egitaraua.

Holan, hilaren 19an, 17:30ean, Bediako liburutegian egongo dira Ander Arandia eta Garbi Arroyuelo, zortzi hilabetez, 250 egunez, egindako bizikleta bizimodua, Alegiatik Boli Kostarako bidaia azaltzen. Ostean, 18:30ean, Uda-

lak planteautako kirol erronka bete ebene talde argazkia egin eta oparitxo bat jasoko dabe.

Hurrengo egunean, "Mugitu martxa nordikoagaz" lelopean, 17:30ean, ikastarotxo egongo da plazan. Teknika ikasteko tailertxo bat, trebetasunak hartzeako jolasak eta ibilaldi txiki bat ikasitakoa praktikan ipinteko egongo dira.

EMA

Ekimena European sortu zan 1999an, eta 2000. urtetik aurrera Europako Batzordearen babesa izan dau. Urtero, urri lehenengoaren 16tik 22ra bitarteko aste-betean, hainbat jarduera egiten dira mobikortasun jasagarria sustatu eta jardunbide egokiak eta neurri iraunkorrak bultzatzeko. Urri lehenengoaren 22an "Hiria kotxerik gabe!" ekitaldia egiten da, Europako ekimenaren jatorria dana.

Aurtengo gaia "Isuririk gabeko mugikortasunaren alde" da. Izan be, 2050erako karbono isurietan neutraltasuna lortzea da Europako Itun Berdean jasota dagoan helburu bat.



ARRATIA, UBIDE

Artea, Areatza eta Ubidetik bisita eta ibilbide gidatuak egongo dira hamabostaldi honetan Gorbeia helmuga turistikoaren eskutik

Erredakzinoa

Artearen historia San Migel leiharen bidez jakiteko aukerea urri lehenengoaren 21ean egongo da; Areatzako uribildua ezetutekoa, hilaren 22an eta Ubideko antxinako galtzadatik ibilteko, 29an.

Arteako plazan 11:00etan batu eta Elexabeitiako San Migel eleizarrentza joango dira bisita gidatu honetako partaideak. Juanjo Hidalgo historialariak, Erdi Aroko eleiza hori dan ondare garrantzitsuen barri emongo dau bertan. Eleiza berezi egiten dauan elementurik nabarmenena, egurra da. Eleizarako sarrera dan atearen gainean eta kanpantorrean dagozan egurrezko egiturak 1621ekoak dira.

Hurrengo egunean, hilak 22,

11:00etan, Mikel Urrizek azalduko deutse bertaratutakoei Areatzako historia, 1338an sortu zanetik gaur arte; etapa desbardin horreen lekuko diran eraikin eta urigintzea azalduz.

Hirugarren hitzordua, hurrengo domekan, hilak 29an izango da. Goizeko 10:00etan batu eta Ubideko antxinako galtzadatik ibilbideari ekingo deutse hurretarutakoei Euskaditrek-en eskutik. Erdi Arokoa da galtzada hau eta Gasteiz eta Bilbo lotzean ebazan. Ibilbideak 10 km inguru eta 250 metroko desnibela ditu, zirkularra da, Otzarretaraino eta bueltea erreka ondotik.

Izena 94 612 26 95 telefonon edo turismo@gorbeialde.com helbidean emon daiteke.



ARRATIA

Sanmigelak, udagoieneko lehenengo jaiak



horren aurretiko astegoienean ospatuko dituez jaiak, ermiten inguruan. Arteako Elexabeitin, Igorreko Mikele auzoan eta Zeanuriko Uribe eta Alzustako auzunetan San Migel ermitak dagoz. Urriben, San Migel egunaren aurreko astegoienean eta Alzustan, ostekoan, ospatuten ditue.

Bediako Jauregi-Yeuri auzunean be ospatuten ditue San Migel jaiak.

Uribe (Zeanuri)

Urri lehenengoak 21, zapatua
14:00etan, herri bazkaria.
Arrastian Mus eta Briska Txapelketak.

Urri lehenengoak 22, domekea
12:30ean, meza nagusia. Ostean, barauskarria eta herriko txistulariak.

Urri lehenengoak 23, astelehena
Arimen aldeko mezea (ordua domekako mezan zehaztuko da).
17:00etan, urdaia eta txokolatea.

Garbe (Igorre)

Urri lehenengoak 27, barikua
17:30ean, Markeliñe konpainiaren *Artulio* antzezlan.
19:00etan, parilladea.
19:30ean, erromeria Gauargigaz.

Urri lehenengoak 29, domekea
12:00etan, Mikele ermitan mezea.

Elexabetiti (Artea)

Urri lehenengoak 29, domekea
12:00etan, mezea. Ostean, barauskarria.

Jauregi-Yeuri (Bedia)

Urri lehenengoak 28, zapatua
12:00etan, jai hasikerea pintxopoteagaz.
13:00etan, Igel Txapelketea.

14:30ean, auzo bazkaria.
16:30ean, zozketea.
17:00etan, Mus eta Briska Txapelketak.
20:00etan, txokolatea eta bingoa.
22:00etan, DJ-a.

Urri lehenengoak 29, domekea
14:00etan, IX. Pintxo Lehiaketea.

Altzusta (Zeanuri)
Urri lehenengoak 29, domekea
13:00etan, mezea, barauskarria eta herriko txistulariak.

Urri bigarrenak 4, barikua
18:30ean, Mus (izen-emotea).
19:00etan, Mus Txapelketea.

Urri bigarrenak 5, zapatua
14:00etan, auzo bazkaria.
17:00etan, Briska Txapelketea.
17:30ean, Kofradien arteko Bola Txapelketea.
19:00etan, Etxebarria aita-semeak eta jantzen artean, txorizoa eta urdaia.

Erredakzinoa

Hilaren amaierako jai honek hainbat auzunetan ospatuten

dira; izan be, San Migel izenpeko ermita asko dagoz Arratian.

Urri lehenengoaren 29an bertan, domekea da aurten, edo

IGORRE

Urrietan, Igorren erostea %33 merkeagoa da Bono Denda kanpaineri esker

Erredakzioa

Urri bigarrenaren 31ra arte mar-txan dago Bono Denda kanpai-nea Igorren, herriko merkataritza bultzatzeko helburuagaz. Bonu bakotxaren eskuratze kostua 10 eurokoa da, eta horrek 15 eu-

roko balioa emoten deutso era-biltzaileari, kanpainara atxikitako dendetan erabilteko. 3.500 bonu ipini dira herritarren eskura. Horretarako, Igorreko Udalak 17.500 euro ipini ditu.

Bono Denda kanpaina honetan lehenengoz, bonuak ez dira fisikoak eta ez dira aurretik erosi behar, erosketak egiterakoan erosi ahal dira NA aurkeztuta. NA bakotzeko hiru bonu baino gehiago ezin da erabili.

"Igorreko Udalak kanpaina honetan parte hartzera animetan gaitu, ziur gagozalako holango proposamenek sektore ekonomikoa dinamizetan eta herriaren irudia indartzen lagunduten dabela", azaldu eban Olatz Urkiza Igorreko alkateak.



ARANTZAZU

II. Berdintasun Plana egiteko prozesua abiatu dau Arantzazuko Udalak

Erredakzioa

Arantzazuko Udalak II. Berdintasun Plana diseinetako prozesua ipini dau martxan. Herritarren er-txi eta ekarpenak jasoteko galde-tegia heldu arazo da etxe guztieta-ra, herritarrek bete eta udaltekiko postontzian ixteko. Hilaren 25ean, 18:30ean, saio parte-hartzailea egongo da Kultur Gunean.

Galdetegian, bardintasun plan bat zer dan definidu eta andra eta gizonen arteko bardintasuna bul-tzatzeke, 9 aukeraren artean, zein-tzuk izan behar daben lehentasuna Udalaren esku-hartzean itauntzen

jakie herritarrei. Ostean, herritarren proposamenetarako lekua dago.

Ekarpen honeek kontuan har-tuta, plana hurrengo hilabeteo-tan diseinatu da, metodologia parte-hartzailea erabiliz. "Horretarako ezinbestekoa izango da udal langile, politikari eta herriko hainbat eragileagaz batera lan egi-tea. Izan be, topaketak, alkarrizketak eta galdetegiak egingo dira; eta, era berean, datuak eta esta-distikak berrikusiko dira, andra eta gizonen arteko bardintasunaren arloan izan diran aurrerapenen eta hobetu beharreko gaien barri izateko" adierazo dabe Udaletik.

DIMA

Dimenerrek eta Udalak berbaldi-tailerra antolatu dabe

Erredakzioa

Dimako Energia Barriztagarrien Komunitateak bere proiektua sendotzen jarraitzen dau eta autokonsumo partekatua eta Dimako Udalgaz batera, energia komunitadeen gaineko berbaldi-tailerra antolatu dau urri lehe-nengoaren 26rako, 18:30ean,

Abaroa aretoan. Berbaldi-tailerra interesa daukien guztiei zabalik dago eta ez da aurretik izena emon behar.

Goiener kooperatibako kide batek emongo dau berbaldi-taile-rra. Helburua, autokonsumoa zer dan jakitera emotea da: autokon-sumo motak, ereduak, egungo legedia, dirulaguntzak eta abar.

IGORRE

Euskerearen aldeko giza mosaiko erraldoi bat izango da Igorreko Inbiu jaiaren protagonista

Urri lehenengoaren 21ean izango da jai. Aurtengo erronka euskerearen aldeko giza mosaiko erraldoi bat egitea da, alkarte, ikastetxe eta biztanleen laguntzeagaz. Jaiak herri bazkari batez eta Eingo girotutako musikeagaz jarraituko dau, eta amaitzeko, Orkresta Elektrotunak herriko erdigunea zeharkatuko dau.

Erredakzioa

Aurten, euskerearen aldeko erronka bat egingo da, Igorreko Udalak eta Katiuska ta Katiluk antolatuta, arrakastaz gauzatu diran aurreko erronkei jarraipena emoteko; Lip Dub herrikoia edo kamioia arrastetea, esate-rako. Oingo honetan, erronka giza mosaiko erraldoi bat egitea izango da, alkarteen, ikastetxeen, biztanleen eta hurreratsen dan guztien laguntzeagaz. Letraz oso-tutako mosaikoak euskerearen aldeko esaldi bat sortuko dau, eta Igorreko Lehendakari Agirre kaleko lehen zatian egingo da berau.

Jaia, Igorren euskerearen ikur dan Zuztertxuk eta lau galtzago-rrik alaituko dabe. Eurekaz batera Eingo trikitixa eta musika esko-lako hainbat kidek be girotuko dabe topaketea. "Erronka honen bidez, Igorre euskalduntzearen aldeko harremanak, parte hartzea eta herritarren laguntzea sustatu gura dira. Horregaitik, funtsezkoa da Igorreko talde eta alkarte en-blematikoen, ikastetxeen eta au-zokideen parte-hartze aktiboa", azpimarratu dau Olatz Urkiza Igorreko alkateak.

Parte hartzeako modalidadeak

Giza mosaikoan parte hartzeako hainbat modu dagoz. Arratiako alkartek eta Institutuak giza mo-saikoaren letrak sortuko dabez koloretako orriakaz. Ikastetxeak, jubiladuak eta beste kolektibo batzuk, barriz, giza mosaikoaren esaldiaren kanpoko dekorazioaz arduratuko dira eta burua orri zu-riz estaliko dabe, ondoren egingo dan esaldiaren argazkia garbitze-ko eta gainerako jentea, esaldia-ren kanpokaldea, zapiakaz edo eskuak altxauta apainduko dabe.

Hori guztiori, kameratan eta

drone baten bidez grabauko da, ondoren komunikabideetan, web-guneetan eta sare sozialetan za-balduteko eta Igorreko memoria historiko-kulturalean txertatzeko.

Erronka egin ostean, Inbiu jaiak herri bazkari batez eta Eingo taldeak girotutako musike-agaz jarraituko dau. Amaitzeko, Orkresta Elektrotunak herriko erdigunea zeharkatuko dau. Zuztertxu, galtzagarriek eta Ein-gok musikaz lagunduko deutsee parte hartzaileei kalejira baten bazkari herrikoia egingo dan gu-neraino.



ZEANURI

Mazala Andra Taldeak sendabedarren inguruko ikastaroa antolatu dau

Erredakzioa

Garbiñe Larrea naturopatak *Emakumearen zikloak eta osa-sun hormonalaren sendabelarrak uztartuz* izeneko ikastaroa emon-go dau Zeanuriko Kultur Etxean. Ikastaroak hiru saio izango ditu; lehenengoa, hilaren 18an; bi-garrena urri bigarrenaren 16an eta atzena, zemendiaren 20an. Saiok 18:00etatik 20:00etara izango dira.

Garbiñe Larrea Iturralde (Her-

nani, 1976) naturopata kole-giatua da, EHU Zuzenbidea ikasi eban arren. Sendabedarren mundua familia tradizionotik ja-torko, eta 2013tik, dibulgazio lanetan espezializatu da. 2018tik 2020ra EITBko Txoriene progra-man kolaborazioak egin eban eta naturopatia konsultan egiten dau lan, Azpeitian, Donostian eta Ondarroan. Liburu bi ditu kalean, *Sendabellarrek dakitena*. Ezagu-tu, bildu eta erabili (2021) eta *Sendabellar baratzea* (2022).



ARRATIA BHI INSTITUTUA. ERASMUS+

Erasmus+ hauspoari eraginda, Arratia Institutua barrikuntza sua suspertzen dabil

Arratia Institutuan Mundugintzan gabiz aspalditik. Ikaslea helburu, aniztasuna eta inklusioa ikur eta euskerea oinarri hartuta, jakintzagaiak –lehenengo ikasgaiak– eta proiektuak buztartzen gabiz Hezkuntza Proiektua eguneratzeko, kalidarezko alkarbizitza sustatzeko, hezkidetzan jantzeko, kide guztien ondoizatea eta osasuna bermatzeko eta digitalizazio arduratsua bideratzeko.

Arratia BHI Institutua

Holan ba, azken urteotan, institutuko Zaindu Maite Duzun Hori taldea hainbat ubideren bateragune bihurtu dogu: Alkarbizitza eta Hezkidetzaren (bardintasunean hezten) proiektua, BAT (Bizikidetzaren Aldeko Taldea/Bullyinaren Aurkako Taldea), Euskara Normalkuntza Plana, Agenda 2030 (Nazino Batuen Erakundeak garapen jasangarrira, bardintasunera eta aurrerapenera zuzendutako akordioa) eta Hezkuntza Barrikuntza (curriculum barriak ekarritako aldaketak ezartzeko). Hezkuntza Sailak bideratutako Eusle eta HIPI programak (Hezkuntza sistemara etorri barri dagozan ikasleei eskolako komunikazio hizkuntza, euskerea, eskuratzeko prozesua errazteko) eta berariazko beharrak daukizanentzako Bidelaguna eta HBSP egitasmoak be geure egin doguz.

Mundurantzako egiteko gogotsu, ikastetxeko baloreak oinarri hartuta eta ikasleen garapen integratzen sakondu asmoz, Erasmus+ proiektuagaz bat egitea erabagi genduan igaz. Izan be, Europar programa honen oinarriko printzipioak geureakaz bateragarriak dira: inklusioa, aniztasuna, jasangarritasuna, hezkuntza digital arduratsua, kooperazioa eta alkarbizitza demokratikoa. Bide batez, institutuan egiten dogun hori ikastetxeko lau hormatetik atera, eta Arratiatik harago zabaltzeko aukerea eskaintzen deusku. Baita Arratiatik haragoko haize barriei geure leihotako zirrikietatik sartzean itxetokoa.

Mundurantzako bidaia hori hasteko, 2023-2024an LAN (Look After the Net)-Zaindusare proiektua aurkeztu genduan eta baita lortu be. Proiektuaren helburuak honeexek izan ziran:

1. Ikasleek –euren artean– etorkinak hartu eta laguntzeko sarea sortzea eta zaintzea.
2. Irakasleek euren gaitasun profesionalak garatzea, ikasleen kompetentziak hobetzeko.
3. Irakasleen eta ikasleen gaitasun eleanitza hobetzea, aukera hobeak emoteko eta gure erakundea Europara zabaltzeko.

*Azken urteotan,
institutuko Zaindu Maite
Duzun Hori taldea
hainbat ubideren
bateragune bihurtu
dogu: Alkarbizitza
eta Hezkidetzaren
(bardintasunean
hezten) proiektua,
BAT (Bizikidetzaren
Aldeko Taldea/
Bullyinaren Aurkako
Taldea), Euskara
Normalkuntza Plana,
Agenda 2030 (Nazino
Batuen Erakundeak
garapen jasangarrira,
bardintasunera
eta aurrerapenera
zuzendutako akordioa)
eta Hezkuntza
Barrikuntza (curriculum
barriak ekarritako
aldaketak ezartzeko)*



Atzerrian egon diran irakasleak.

Europar Batzordeak emondako diruagaz hainbat ekimen bideratu doguz.

Ikasleei jagokenean:
Enbajadore sarea. Ikastetxeko harrera batzordeagaz alkarlanean, DBH 4. mailako ikasleek, komunitadeari zerbitzua egin guran, ikasturtean zehar atzerriatik institutura datozen ikasleei harreara egiteko plana prestatu dabe: lehenengo egunetan ondoetorria zelan egin, oinarriko hizkuntza zelan irakatsi, ikastetxeko zerbitzuak zelan ezetu arazo, ikasleak zelan inplikau...

Enbajadore taldea Alemaniara eta alemanak geurera. Abenduan Ulmera joan ziran geure ikasleak eta Alemaniako kideak geurera bagilean etorri ziran (ikus BEGITU 430. zenbakia).

eTwinning proiektua: Alemaniako lagunak alkartu aurretik, ezetuteko aukerea emon deusku Europar Batzordearen tresna honek. Ostean be, egindako joan-etorri guztiak ebaluetako eta ikasitakoa errepasetako balio izan deusku.

Arnasgunea: gainontzeko ikastetxeetan moduan geurean

be desoreka emozionalak daukiezan ikasleak dagoz; batzuek momentu konkretu baten, beste batzuek denpora luzean zehar. Bizitza zailtasunez beteta dago eta ezinegona gatxa da saihestea. Kanpokoari aurre egiteko eta barrura begiratzeko aukerea emoten dauan txoko berezia prestatu dabe gure ikasle enbajadoreek ikastetxean.

Irakasleen formazioa

Irakasleek, euren oporraldietan egin dabezan ikastaroetan, hainbat gai jorratu, europar kide ugari ezetu eta euren hezkuntza sistemen barri euki dabe. Hemen euren testigantzak:

1. Aniztasunaren aurrean: kulturarteko ikasgela kudeatzea.

"Ikastaroaren programa zabaldua izan zan, kulturartekotasunak daukan hainbat alderdiri buruzkoa. Besteak beste, nor-tasun kulturala, inklusioa eta aniztasuna, ikasgela anitza kudeatzeko estrategiak eta artea hezkuntza inklusiboan. Ikastaroaren helburuak honeek izan ziran: ikaskuntza ikuspegi desbardinaren kontzientzia zabalagoa lortzea,

kulturen arteko komunikaziorako trebetasunak garatzea, ikasgela desbardinak kudeatzeko metodo barritzaileak ezetutea eta aniztasuna erronka izatetik aukera bihurtzeko estrategiak geureganatzea. Estrasburgo eta bertako erakundeak be ezetu genduzan. Sano poztu ninduan Xabier Landaburuk II. Mundu Gerraren ostean Europa eregitoko egindako lana ezetuteak". Ibone Amorrortu Amari, Estrasburgo, 2024ko martia.

2. Kultura eta ingurumen hezkuntza lantzeko ikasgelaz kanpoko jarduerak.

"Egungo krisialdiaren aurrean zelan jokatu hezkuntzan landu genduan ikastaro honetan. Batez be aitatu zan, zelango garrantzia daukan emozinoak aterateak, alkar ezetuteak kurso hasieratik, eta naturan egiten diran ekintzak. Partaide guztien artean partekatutako doguz gure esperientziak. Hezkuntza arloan zeintzuk diran azkenengo tendentziak ikusteko aukerea izan dot. Kursoan ikasitakoaz aparte aukerea izan neban Kretak daukan aberastasun kulturala ezetuteko. Kursoko

irakasleak Chania uria bisitatu genduan, kultura minoioa eta bere natureagazko erlazinoaren barri jakin genduan. Mino-tauroa adibide gisa. Harritu egin ninduan bai eta onerako!". Alex Madariaga Muñoz, Chania, Kreta, 2024ko bagilea.

3. Museoa ibiltari: tokian tokiko historia gelan integretan.

"Gaia ondare kulturala gelartzeara izan zan. Ikastaroaren helburua, herriko ondare kulturalak eskaintzen dauzan baliabideei etekin gehiago ateratea hezkuntzan izan zan. Ikasitakoaren artean honek nabarmenduko neukez: teknologia barriek emoten dabezau aukeretan sakondu dogu eta aplikazio barri asko ezetu dodaz.

Ikastaroaren alderdi aitagarrienak honeexek izan dira: ikaskuntza oso pertsonalizatua izan da, edukiak oso era dinamikoan eskaini deuskuez irakasleoi ikasleentzako lekuan jarri arazota". Miren Idirin Legarreta, Kalamata, Grezia, 2024ko bagilea.

4. IKT tresnak ikasgelako alkarlanerako eta sormenerako.

"Ikastaro honetan ikasgelan alkarlan eta sormena sustatzeko hainbat online aplikazio erabilten ikasi dot. Esperientzia praktikoa lortuz, eta tresna bakoitzaren indargunak eta ahuleziak eztabaidatuz nazioarteko irakasle taldean, beti be inklusioaren eta iraunkortasunaren ikuspegia aintzat hartuta. Nire klaseetan tresna horiek erakargarriagoak eta eraginkorragoak izan daitezkan be ikasi dot.

Oso aberasgarria izan da nazioarteko irakasleak lan egitea eta Italiako kulturaren murgiltzea. Herri zoragarria da Florentzia!". Ainize Egiraun Martinez, Florentzia, Italia, 2024ko garagarria.

5. XXI. mendeko ikasgela: aro barri baterako ideia barriak.

"Hezkuntza Barrikuntzari buruzko ikastaroa izan da, irakasle praktikan ikasleentzako konpetentzien garapena erdigunean jarriz, honek garatzeko estrategiak landu doguz batez be. Azpimarratzekoa batez be, Adimen Artifiziala ikasgelan zein eskolak prestatzerako orduan era egokian erabilteari buruzko saioa. Aberasgarria izan da era berean, beste herrialde batzuetako (Hungaria, Polonia, Alemania eta Txekia) kideak esperientziak zein ezagutzak partekatzea. Baita irakasle legez egiten dogun lanaren aitortzea egitea be.

Bide batez, Dublin ezetu dot eta ikastaroaren barruan eskaintako saio kulturalak, irlandar kulturaren murgiltzeko aukerea emon deuste baita "hiberno-english" dalakoa ezetu eta ingelesez hitz egiteko orduan 'irlandarra' emotekoa". Maite Legarreta Iza, Dublin, Irlanda, 2024ko garagarria.

6. Hezkuntza lidergorako barrikuntza: trebetasun tresna leu-

nak.

"Lidergoari buruzko ikastaroa izan da, Flandriako Gante urian. Helburua talde baten lidergoa kudeatzeko erremintak geureganatzea izan da. Ikasitakoaren artean, gatazken kudeaketari eta komunikazio ez-bortitzari buruz landutakoa azpimarratuko neuke, egunerokotasunean erabilgarria izan leiteke-ta. Europa osotik etorri dira irakasleak ikastarora eta Estatu Batuetatik etorritako lau irakasle be lagun izan doguz.

Ikastaroko aberasgarria, gure artean sortu diran alkarriketak izan dira, bakoitzak bere kezka eta esperientziak plazaratuz. Bestalde, herrialde desbardinetan Hezkuntza sistema eta ikasketa zentroak zelantzat izan diran jakitea be oso interesgarria izan da". Aritz Undurraga Almaraz, Gante, Belgika, 2024ko abuztua.

Europatik, motxilan, ezagutza eta esperientziez gainera, etxerako lanak be ekarri dabez irakasleek. Ikaskuntza egoerak sortuko dabez ikasitakoak ikasgeletara eramateko.

LAN proiektuaren azkeneko jarduerak aurton burutuko dogu irakasleak: ikasle sortzaile talde bat –Batxilergo 2. mailako Literatura Unibersaleko irakasleak, Eskolarteko Bertsolari Txapelketan bat-batekoan finaleko postuak lortu ebezanak zein idatzizkoan saria jaso ebenak eta urruzuntarrak– Lapurdira joango dira urri bigarrenaren 11n. Saran ospatuko dan Ikusi Mikusi Haur eta Gazte literatura azokan Idazle ilustratzaileen topaketan hartuko dabe parte, Castillo Suarez idazleagaz egingo dan berbaldian. 12an Uztaritzeko Saint Joseph ikastetxeko ikasleei bertso saioa

eskainiko deuse eta ostean alkarregaz egingo dabe hamabitekoko hobeto alkar ezetuteko.

Baina igazkotik harago, antepara barria egin gura deusagu ikasleentzako, nazioartera bideratzeko ezezik, ikastetxearen gainontzeko helburuokaz bat egiten jarraitzeko. Horregaitik, 2024an hasi eta 2028ra arte bideratzeko garan Erasmus+ proiektuari Munduola deitu deusagu. Ikas-komunitate osoa –ikasleak, irakasleak eta familia– erremintari lanak egiteko prest gagoz proiektua bideratzeko. Honek lortu gura doguz:

1. Igaz sortutako Enbajadoreen sarea indartzea eta gizartera hedatzea.

2. Gure ikasleentzako ondoizate emozionala sustatzea.

3. Irakasle metodologia aktibo eta inklusiboetan trebatzea.

4. Ikasleentzako hobetzea,

Ikaskuntzaren Diseinu Unibersalaren printzipioak aplikatzea. (ikasle guztien beharrak asetzeko irakasleentzako jarraibideak).

5. IKTen erabilera osasungarria eta iraunkorra sustatzea.

6. Ikasleentzako komunikazio gaitasuna hobetzea.

7. Ingurune jasangarriagoa lortzeko ikasleentzako inplikazio aktibo hobetzea.

Ikasleentzako bideratzeko diran ekintzei jagoenez, igazko aleak eihoten jarraituko dogu. Aurreko ikasturtean DBH 4. mailan egoran ikasle enbajadoreetako batzuk, Batxilergo 1. mailan ekimenagaz aurrera egiteko prest agertu dira. Ikasturte honetako helburua sarea hedatzea izango da, familia enbajadore talde bat sortuz.

Baina errotarria martxan mantendutez gainera, hauspoari be eragin gura deusagu. Ikasturte ordez, haizea eta eguzkia erabilita, DBH 4. mailako Ekolider taldeak Agenda 2030eko Garapenerako Helburu Jasangarriak landuko dauz Ikaskuntza-zerbitzua Komunitatean arloan. Ekolider taldeak Ulmeko kideengana joango dira, Alemanian ingurumenaren arloan daukien eskarmentutik ikasteko eta euren egunerokoan murgilduko dira, kultura eta komunikazioa landuta. Geurean ohitura denez, udabarrian Alemaniako lagunak hartuko doguz geure ohiturak, txokoak eta bazterrak erakusteko.

Irakasleok, aurton be, ikastaroak egingo doguz atzerrian, hainbat gairi lotuta. Horrez gainera, Europako hainbat ikastetxe gura doguz bisitatu. Besteak beste, igazko ikasturtean ezetu doguz irakasle batzuen ikastetxeak. Euren egunerokoan jasangarritasuna, ikasleentzako ondoizatea, IKTak eta abarrekotan zelantzat landuten dabezau ikusteko eta euren gaitasunak ikusteko.

Arratia BHiko Erasmus+ proiektua lankidetzak dakarren onuren adibide bikaina da. Etorkinen inklusioa eta ikasleentzako ondoizatea moduko gai kritikoei helduz, eta aldi berean etorkizunerako funtsezkoak diran gaitasunak garatuz, ikastetxean bideratzen diran beste proiektu eta ekimenak batera, herritarren belaraldi inklusiboagoa, konpetentzia eta komunikazioa sortzeko lagunduko deusku.


Erasmus+ hurrerotik ezetu gura dozue? Adi! Urri bigarrenan, badatuz Erasmus Days eta! 14tik 18ra Europa osoan ospatuko dira Erasmus+ proiektua hedatzeko. Guk hainbat jarduerak burutuko dogu ikasle, irakasle, gainontzeko langile, familia zein herritarrentzat. Erdutze! eta zertan gabizan jakin gura badozue, sartu x.com/Munduola kontuan.



Arratia BHiko enbajadoreak.



Ikasleak Ulmen (Alemania).



Igorre 2024

Inbiu

eguna

IRAILAK 21 LASARTE PARKEAN

12:00 Euskararen aldeko herri-erronka: giza-mosaikoa
Katuska eta Katiluren eskutik

15:00 Herri bazkaria Lasarte Plazan

16:30 EinGo Lasarte Plazan

18:30 Orkresta elektrotxaranga
Lasarte plazatik hasite

Tiketak salgai
Txaparron eta Jubilatuenean

Animatu eta parte hartu!

Inbiu eguna HELDUAK
Oilasko paella, sukalkia, pantxineta, ure, ardaue, kafea, infusinoak
18€

Inbiu eguna UMEAK
Makarroiak txorizoagaz, oilasko errea patatakaz, yogurra, ure, freskarriek
15€


Euskereak batzean gaitu

IGORRE

Euskereak zuzterretik

Katuska eta Katiluren Herri-Erronka





HERRI BAT
MERKATU
BAT

MERKARTEA

2024 IRAILAK 21

-10:00-15:00: Merkartera Azoka
-11:00: Bisita gidatua "La historia de Artea a través de la ventana de San Miguel". Leku mugatuak. 4€ 
-12:00: Arantzarte Dantza Taldeko fundatzaileei omenaldia beren 50. urteurrenean.
-12:00-14:00: Photocall (Baseritarrez jantzita datozenentzako)
-21:00: Arantzarte Dantza Taldearen ikuskizuna
-23:30: Erromerie: Lehian



Euskara eroso bizitzeko





Arratiako AEK
EUSKARA-IKASTAROAK
Matrikula zabalik

- Maila guztiak, azterketa ofizialak: A1-A2-B1-B2-C1-C2
- Ordu-tegi zabalak

Ellexalde 10, Igorre
94 631 56 57 / 607 632 916 · arratia@aek.eus

DIRULAGUNTZAK
Eusko Jaurlaritzak, maila egiaztatuz gero. Arratiako udal guztiek diruz lagunduta.



bono denda



IGORRE



ETORRI IGORRERA EROSKETAK EGITERA!

IRAILA 4
URRIA 31

INFORMAZIOA+

WWW.BONODENDAIGORRE.COM

15€-ko BONOA 10€-tan*

MERKEAGO
%33

INFO+



*LORTU ZURE BONOAK ELKARTUTAKO DENDETAN



MERKARTEAN IRAILAK 21

11:30etan: BIRZIKLATZE HERRI KIROLAK



11:00etatik
14:00etara
informazio puntua
eta organikorako
materialen
banaketa

**12:30ETAN: HONDAKINEN
KARAKTERIZAZIOA KALEAN**
Caracterización de residuos en la calle

Harrituko zara
edukiontzi grisera
botatzen dogunagaz



FUTBOLA



Arratia A taldeko jokalaria Oyonesen kontrako partiduan.

Andrazkoen Arratia A bigarrena da ligako lehen partidu biak irabazita

Hilaren 7an hasi eban Arratia A taldeak ligan Urbietan eta 2-1 irabazi eban Berriozar talde nafarraren kontra.

Hurrengo partidua Oyonesa talde igon barriaren kontra jokatu eban eta 0-1 irabazi eban.

Erredakzioa

Emakumezkoen RFEF Hirugarren Mailako bigarren multzoan dago Arratia A eta lehen partidu biak jokatu ostean bigarrena da talde arratiarra Burgos liderragaz bardinduta.

Hilaren 14an etxetik kanpo jokatu eban Oionen (Araba) Oyonesa taldearen kontra eta Amaia Alzaga aurrelariak bigarren zatiko haizkagarren minutuan sartutako golari esker Arratiara ekarri eban hiru puntuak. "Partiduan sartzea kostau jaku, bigarren zatian halanda be askoz hobeto jokatu dogu, partidu amaieran sufridu dogun arren" adierazo eutsan BEGITURI Nerea Beitia arratiarren kapitainak.

Ligako lehenengo partiduan ostera Arratia nagusi izan zan partidu osoan zehar, baina gola egitea kostau jakon, gainera lehen zatian gol bat baliobakotu eutsen jokoz kanpo egolako Arratiako jokalaria bat eta bigarren zatian, 0-1 galtzean joianean, penalti bat hutsegin eben arratiarrak. "Partidua oso polita izan da, ikustekoa, denpora guztian euren zelaian egon gara, askoz hobek izan gara eta oso ondo jokatu dogu, lehen zatian sartu deuskue gola, baina okasino asko euki doguz eta ezin izan doguz sartu. Bigarren zatian galtzean goazela ikusita urduri ipini gara, presinoa igarri dogu, baina gola sartuko genduala argi geunkan. Penalti bat euki dogu alde, nik bota dot baina huts egin dot", adierazo eutsan partidu ostean BEGITURI

Beitiak. "Hortik aurrera denpora guztian segidu dogu euren area inguruan. Azkenean, korer ingurutik falta bat errematau dau Itsaso Kumik eta bardinketearen gola sartu dau. Orduan hazi egin gara eta bigarren gola egin dau Alba Del Hoyok atzen minutuetan", gehitu eban lemoztarrak.

Jardunaldi biren ostean Arratia Ak 6 puntu ditu eta bigarrena da sailkapenean. Datorren partidua be etxetik kanpo jokatu dau Bilbao Artizarrak taldearen kontra hilaren 21ean, arrastiko 16:00etan.

Gizonezkoek 21ean hasiko dabe ligan

Gizonezkoen Arratia A taldeak, aurreko denporaldian Lehenengo Ligako maialara bajatu ostean, hilaren 21ean hasiko dau ligan Urbietan, arrastiko 18:00etan, Ugeraga A taldearen kontra. Arratia B taldeak ostera etxetik kanpo jokatu dau Etxebarri A taldearen kontra 18:15ean. Lemoako Harrobik Gemika B taldearen kontra jokatu dau 18:30ean etxetik kanpo.

Gizonezkoen jubenilak lau puntu partidu bitan

Gizonezkoen Arratia A taldeak be zapatuan hilaren 7an hasi eban denporaldia Euskal Ligan. Gogoratu urte bitan jarraian igon dala taldea mailaz. Urbietan jokatu dogu lehen partiduan bana bardindu eban Audio taldearen kontra, galtzean hasi baziran be. Bigarren partiduan ostera 2-3 irabazi eban etxetik kanpo Añorga taldearen kontra.

MENDI LASTERKETEAK

Hilaren 28an jokatuko dira Gorbeia Suzien Merrell mendi lasterketak Zeanurin

Urri lehenengoaren 28an izango dira Gorbeia Suzieneko lasterketak: 32

kilometrokoa eta 21 kilometrokoa, hain zuzen be. Lasterketa luzea, 32 kilometrokoa, Gorbeia Suzien Skyrace, World Series-en barruan dago, hau da Munduko Kopan eta Zeanuriko lasterketea puntuagarria izango da finalera sailkatzeko.

Erredakzioa

Lasterketea ikusteko autobus zerbitzua egongo da Areatzatik eta Zeanuritik Pagomakurrera eta Pagomakurretik Areatzara eta Zeanurira, goizeko 07:00retatik arrastiko 16:00ak arte. Lasterketa nagusia, 09:00etan hasiko da eta Gorbeia Suzien 21K, 11:00etan. Sari banaketea 14:30ean izango da eta arrastian hasi eta goizaldeko ordu txikiak arte, musikea egongo da herrian.

Motorrak berotzen hilaren 20tik

Lasterketak dirala-ta, antolakuntzeak bost eguneko egitaraua prestatu dau. Aurreko asteko barikuan, hilak 20, 19:30ean hasiko da mendia, natura eta kirolaren jaiak dan hau, Sonia Rodriguezek Igorreko Kultur Etxean egingo dauan berbaldi-proiektzioagaz. Abenturazaleak, Patagonian egingo dako zeharkaldia azalduko dau; hego-izotz kontinentalean, oinez eta eskiatzen. "Paisaia sinesgaitzak: granitozko torreak, glaziar amaituezinak, baso makurrak... eguraldi aldakor muturrekoa" ikusiko ditue Lasarte Aretora hurrerutakoak.

Hurrengo egunetako programazioa mendi lasterkariei zuzenduta dago. Izan be, domekan, hilak 22, Merrell zapatillen test-a eta Gorbeia Suzien lasterketearen ibilbidearen zati bat egiteko aukerea izango dabe 09:00etan. Lasterketa eguneko bezperan, bariku arrastian, dorsal banaketea eta berbaldi teknika egongo dira.

Astegoiena, mendia eta jaiak

Zapatua da egun handia. Ehunka lasterkari hartuko dabe parte Gorbeia Suzien mendi lasterketan. Gorbeia Suzien Skyrace, 32 kilometrokoa, mundu osoko 600 korrikalari inguruk hartuko dabe parte, -Oihana Azkorbebeitia eta Onditz Iturbe dagoz izena emon dabenen artean- Munduko Kopako lasterketea dalako. Eta 21 kilometrokoa beste 200 lasterkari hartuko dabe parte. Lasterketea amaitutakoan, 13:00eta-

tik 16:30era berreskuratuko ditue indarrak lasterkariek, frontoian bazkaltzen.

Arrastian, mendiak musikeari pasauko deutso jaiaren lekukoa eta goizaldera arte egongo da jantzan egiteko aukerea. Arrastiko 17:00etan, Esti eta Olatz Zeanurikoek musika emonaldia eskainiko dabe; 18:00etan, Joselontxos Txarangak hartuko ditu

kaleak eta 22:00etatik aurrera DJ-en txandea izango da: 22:00etan, DJ Canyn eta 02:00etan, DJ Lander egongo dira.

Domekan, umeen Gorbeia Suzien egongo da, umeentzako egokitutako lasterketea, hain zuzen be. 11:00etan, emon ahal izango dabe izena eta ostean egingo dabe euren Gorbeia Suzien, etorkizuneko lasterkariek.



Argazkia: Julen Axpe.



IGERIKETEA

Igorreko Igeriketa Kluba entrenatzaile bila dabil



Erredakzioa

Igorreko Igeriketa Klubak urri bigarrenean hasiko dan denporaldirako, 2024-2025, titulaziodun igeriketa entrenatzailea behar dau. Entrenamentuak martitzen eta eguenetan, 17:00etatik 19:00etara, egiten ditu igeriketa taldeak.

Igeriketa klubeko entrenatzaileak, euskerazko gaitasun naturala izan behar dau eta Soin Hezkun-

tzan eta Kiroletan Lizentziaua edo Graduaua; TD1, Salbamentu eta Sorospeneko Kirol Teknikari titulazioa edo Egokitzen Fisikoko Goi-mailako Teknikaria edo baliokidea izan behar dau. Entrenatzaile eta ugerlari moduan izandako esperientzia be kontuan hartuko da.

Taldeagaz hartu-emonetan ipinteko igorreigeriketataldea@gmail.com helbide elektronikora idatzi behar da.

ERRUGBIA

Arratiko Zekorrak taldea ipini da denporaldi barrirako martxan

Erredakzioa

Ekin Eraikuntzak Arratiko Zekorrak taldea badago 2024-2025 denporaldira begira. Aurreko urteetan lez, Euskal Ligako 2. mailan ari-tuko dira errugbi jokalaririk eta ligako ordutegia oindino ebatzi ez bada be, urri bigarrenean hastea espero da. Aurten, Gernika Rugby taldeagaz jokalaririk alkarbanatuteko hitzarmena, Euskal Ligako 1. mailan dagoan Urgozo talde zornotzarragaz be egin dabe. Holan, jokalaririk al-

datu leikiez talde bietako batek ligako atsedean jardunaldia daukanean.

Arratiko Zekorrak taldea eguen eta martitzen arrastietan, 19:00etan, batzean hasita dago entrenamentuetarako, Igorreko San Txisme zelaietan hain zuzen be. Ekaitz Duñabeitia entrenatzaileak, errugbian ibilitakoei edo hasteko interesa dabenei dei egin deutse, entrenamentu eguetan San Txismera hurreratu eta entrenatzaileei esanda, taldera batzeako.



PELOTEA

Lemoako Eskupilota Taldeak 40. urteurrena ospatuko dau hilaren 21ean

Lau hamarkada honeetan, Lemoako pelota eskolatik eta klubetik pasautako ikasle, entrenatzaile eta pelotariak batu gura ditue kiroldegi eta eskolearen inguruan, egun osoko jai baten, urteurrena ospatuteko.

Erredakzioa

Goizeko 09:00etan hasiko da jaiak, belaunaldi desbardineta pelotarien partiduak. Partidu honek, taldearen historia jasoko dabe eta oraina eta etorkizuna erakutsi; 40 urteotan egindako lana, hain zuzen be.

Ostean, 13:30ean, trikipotea egongo da. "Partiduak frontoian eta trikipotea bertan izango da bazkalordurarte. Taberna bat ipiniko dogu" azaldu deutso BEGITU Oier Mena Lemoako Eskupilota Taldekoak. Herri bazkaria, eguraldiaren arabera, eskola gunean edo kiroldegian izango da. Asmoa eskolako aterpean egitea da. Baita bazkalosteko bingoa be. Eta hantxe bertan erromeria Kittu taldeagaz 19:00etatik aurrera.

Lemoako Eskupilota Taldea

1984an sortu zanetik Lemoakoa beti izan da klub indartsua eta izen handiko pelotariak izan ditu eta ditu. Beste batzuen artean, Aitor Erauzkinek, Imanol Agirrek, Imanol Arresek, Oier Etxebarriak, Iñigo Leizak, Xabier

Galarzak, eta Mikel Aurrekoetxeak loturea daukie Lemoako klubagaz, bertatik urten edo bertan entrenatzaile diralako. Nesken pelotari jagokienean be, pelotari talde handia dauka Lemoak, eta igaz, klub honetako hamabost pelotarik hartu eben parte Bartzelonan jokaturako estatu mailako andren binakako

txapelketan. Danak oso gazteak izan arren, Euskal Herri mailan, nesketan, pelotari gehien daukan klubetako bat da Lemoakoa eta erreferente bihurtu da.

Talde lanari garrantzi handia emon deutan kirol taldea dala dino Mikel Aurrekoetxea pelotari eta entrenatzaileak. "Kirol bakartiar lez hartzean bada be, egunerokotasunean talde kohesinoa eta alkarlana nabarmentzen dauan talde bat izan da betidanik. Haur, gazte, heldu eta gurasoen arteko harreman sendoa bultzatu dauana bai kantxa barruan eta kanpoan. Horrek, arrakastea ekarri deutso klubari. Kualitatiboki, errendimendu mailan Euskal Herriko klub garrantzitsuenetariko bat izan da atzenengo hamarkada biotan. Ez bakarrik profesional mailari begira, baita afizionau eta eskola mailan be. Errendimenduaz gainera, konpromisoa eta errespetua bermatu dauan kluba da, eta horren lanak, arrakasta kuantitatiboan be ikusi daitezke. Kluba, azkeneko hamarkadan nabarmen hasi eta sendotu da, 100 pelotari bilduz".



MENDI MARTXEA

Hilaren 26ra arte emon daiteke izena Areatzako Mendi Martxan

Erredakzioa

Martxea urri bigarrenaren 5ean izango da baina ezin izango da izena emon martxearen egunean. Hilaren 26ra arte, martxearen webgunean, <https://areatzakomartxa.blogspot.com>, rockthesport plataformearen bidez emon daiteke. Hiru ibilbide egin daitezke: ibilbide luzea 27 km eta 1.400 desnibel positiboduna; ibilbide laburra 19 km eta 800 metroko desnibelekoa eta ibilbide familiarra deitu dabena. Honek 12 km eta 500 metroko desnibel positiboa dauka. Izena emoteko tarifak 18, 15 edo 10 eurokoak dira, eta ibilbidearen luzeera eta ibiltariaren adina hartzean dabez kontuan.

Goizeko 08:00etan abiatuko dira martxa luzea eta laburra; familiarra, barriz, 09:00etan.



ANTZERKIA

Euskereagazko erlazinoaren gaineko antzerkia hilaren 28an Kotxepin Kultur Etxean

Erredakzioa

Urri lehenengoaren 28an, zapa-tuan, 20:00etan, Aroa Blancok eta Maite Lopezek, Tautelak konpainiak *Euskaldungak* antzezlana eskainiko dabe Lemoako Kotxepin Kultur Etxean.

Ikuskizun honetan, euskaldun zaharrei euskaldun barriak zuzentzea zergaitik kostetan jakien hainbeste argitu gura dabe antzezleek. Baita euskaldun barriek zergaitik daukien hainbeste bildurra akatsak egiteari.

Umorez, solasaldi, eztabaida eta gaizki-ulertuen bidez gaiari argi apur bat emoten saiatuko dira Tautelak antzerki taldekoak.

"Zer esango dabe euskaldun barri batek eta euskaldun zahar batek euskereari buruz? Euskereagaz daukien erlazinoaz? Beren istoriaz? Istorioa? Historia? "H"-gaz edo barik? "A" itsatsia dauka?" dinoe sinopsian.

Aurten estrenautako lan honegaz lehen aldiz igon dira alkarregaz agerlekura Blanco eta Lopez antzezlaren egile eta antzezleak.



AEK

Zabalik dago Arratiako Kubulu AEK Euskaltegian izena emoteko epea

Erredakzioa

AEK-ko euskaltegiek zabaldu dabe ikasturteko matrikulazioa "Euskara eroso bizitzeko" lelopean. Igorrekoak, ordutegi zabalak eta maila guztiak eskaintzen ditu, baita autoikaskuntza eta online ikastaroak be, azterketa ofizialak eta titulu homologatuak lortu ahal izateko.

Izen-emotea Igorreko Kubulu euskaltegian egin behar da eta Eusko Jaurlaritzako dirulaguntzak eta udal bekak dagoz euskera ikasteko.

AEK-k matrikulazio kanpainaren aurkezpena urri lehenengoaren 4an egin eban Bilbon eta han Lurdes Etxezarreta Artabe Bizkaiko ordezkariak esan eban AEKren helburua Euskal Herriko biztanle guztiak euskeraz eroso

bizitea dala. "Herritarrek, ahal legin berezirik egin behar barik, euskera eroso erabilteko baldintzak izatea gura dogu, euskeraz berba egiteagaitik deseroso edo baztertuta sentidu barik". Azkenaldian epaitegietatik heldutako sententziek ez dabela ixten euskeraz eroso biziten eta hizkuntza eskubideak urratzen dituela salatu eban Etxezarretak.



IKUSKIZUNA

Metamorfosien joko ikuskizun filosofikoa Kotxepin Kultur Etxean

Erredakzioa

Urri lehenengoaren 20an, 18:30ean, Pantzart konpainiak *Metamorfosien joko* ikuskizuna taularatuko dau Lemoako Kotxepin Kultur Etxean.

Metamorfosien joko ikuskizunak Emanuel Cocciaren idea filosofikoa garatzen dau; izaki bizidun guztiok, gizakitik hasi eta bakterioetaraino, bizitza bera partekatzen dogula, hasikera eta amaiera barik, mendeetan zehar transmitidu dana eta benetan inorena ez dana. Bizitza collage iraunkor eta natural bat modukoa da, kosmikoa eta gurabakoa. Guztiok parte hartzean dogu collage horretan, unibersoko elementuak nahasteko joera daukana.

Ikuskizun interaktiboa

Taula, irudi marraztuak dituen lauki handiez osotuta dago. Pu-

blikoko persona bakoitxak karta bat jasoten dau. Kartakaz eta sortzean diran istorioakaz jolastuz, metamorfosiak hedatzen dira taula gainean. Metamorfosi bakoitxak soinu-giro bat dakar, publikoaren proposamenez Lucia Chamorro artistek atoa inprobisetan dauana. Elementu guztiakaz, istorioak, musikak eta mobimentuak, koreografia sortzean da, eta ikusleak konbidautu dagoz koreografia horretan parte hartzera.



IKASTAROAK

Arantzazu, Dima eta Zeanuriko udal ikastaroetan izena emon daiteke



Erredakzioa

Arantzazu, Dima eta Zeanuriko udalak aurkeztu dabe 2024-2025 ikasturterako udal ikastaroen eskaintzea eta izen-emotea zabalik dago edo laster zabalduko da Diman, barbarako. Aurreko urteetan zabalduko bideari jarraituz, ariketa fisikoa egiteko aukera anitza eskaintzen da, gero eta gehiago edadekoei zuzendutakoa.

Gogoratu, Bedian hilaren 19ra arte; Areatzan eta Artean 20ra arte eta Lemoan hilea amaitu arte zabalik dagoala bertan antolatutako ikastaroetan izena emoteko epea.

Arantzazu

Arantzazun hilaren 27ra arte emon daiteke izena udaletxean hurrengo ikastaroetarako: *Pilates*, *Eskulanak zaharberritze lanak*, *Entrenamentu funtzionala*, *Mantentze gimnasia* eta *Yoga*.

Dima

Dimako Udalaren eskaintzea, *Pilates*, *Luzaketak*, *Eskulanak*, *3. adinean ariketa fisikoa*, *Hipopresiboak*, *Entrenamentu funtzionala*, *Yoga* eta *Zumba* ikastaroek osotuten dabe. Izena, urri lehenengoaren 18tik 28ra emon daiteke udaletxean. Ordainketea hileroko egin behar da hilaren 5a baino lehen.

Zeanuri

Honeek dira Zeanuriko Udalak eskaintzen dituan ikastaroak: *Pilates*, *Entrenamentu funtzionala*, *Umeentzako dantza*, *Txikung*, *Adinekoentzako emozioen tailerra*, *Adinekoentzako gimnasia*, *Adimen susperketa eta eskulanak* (Gurutze Gorria), *Euskara eskolak* eta *Mantenimentuko gimnasia*. Izena Zeanuriko udaletxean emon behar da. Plaza mugatuak dira eta beharrezkoa bada zozketea egingo da. Adinekoek osterako ikastaroetara joan-etorria egiteko garraio zerbitzua behar badabe 609 610 855 telefonoan eskatu daikie.

FILM LABURRA

Yoga eta jantzeari buruzko film laburra grabauko dabe Ubiden

Erredakzioa

Sonia Miguel Ubideko yoga irakasle eta artista independentiak eta Natxo Montero jantzeri eta koreografoak grabauko dabe filma Ubiden urri bigarrenaren 13an. Filmazioan figurante moduan hartu daiteke parte, aldezturik www.tatrak.org webgurearen bitartez taldeagaz hartu-emonetan ipinita.

Sonia Miguelek idatzi eta zuzendutako film laburra da *On* eta hainbat diziplina buztartzen ditu; esate baterako, jantzea, yoga, poesia, musika eta bideoarte, "gero eta zatituagoa dagoan gizarte baten indibidualismoagaz kritikoa dan proposamen artistikoa izan gura dauan lana sortzeako". Miguelen esanetan, "obra honek ikaskuntzaren alde egiten dau, guztion eskura dagozan adierazpen artistikoen bitartez, ondoizaterako bide moduan, aktibazino sozialaren

eta parte hartzearen bitartez".

Sorkuntza artistiko komunitarioko proiektua

Proiektu honetako taldea, aitatutako Sonia Miguelez gainera, Igor Urrichi klarinete jotzaile eta

musika ekoizleak, Zuriñe Hidalgo abeslari eta ekintzaileak eta Natxo Montero jantzeri eta koreografoak osotuten dabe. Proposamenean laguntzeko interesa daukien pertsonak be hartu daieke parte.



IKASTAROA

Zeramika ikastaroa eskainiko dau Saioa Larreak Areatzan

Erredakzioa

Urri bigarrenetik bagilera arte eskaintzen ditu helduentzako ikastaroak, Buztinola bere tailer-errian, Saioa Larrea zeramikariak. Ikastaroaren helburuak, "sormena bultzatu, nahiak askatu eta bakotzak libre lan egitea" dira.

Ikasturte osoan zehar izan arren, hilabete bat edo hiruhilabeteetan joateko aukerea dago. Taldeak gehienez 8 personakoak dira. Bakotzak aste egun bat aukeratzen dau; astean, ordu eta erdiko klasea egiteko norberaren mailan eta erritmoari jarraituz. Ikasleen "idea edo proiektuak aurrera aterateko, teknika aukeratu eta garatu egiten dogu; katilu, plater, pitxar, lanpara, eskultura edo muralak" azaldu deutso Saioa Larreak BEGITURI. Behin formea emonda, labean sartu behar da piezea eta labakadea ikasleen artean ordaintzen dabe. Ikastaroak, 140 euroko prezioa dauka hiruhileko.



Astegoinetako ikastaroak

Ikasturtekoaz gainera, astegoinen batzuetan, pieza zehatz batzuk egiteko monografikoak be eskaintzen ditu Larreak; armozurako ontziak, lora edo landareentzakoak, berbarako. Tailer honek ordu bikoak izaten dira eta 40 euroko prezioa izaten dabe.

A large advertisement for BEGITUN magazine. On the left, a young boy wearing a grey cap and a white shirt with a grey vest is shouting into a black megaphone. He is holding a copy of the magazine. The magazine cover features the 'begitu 20' logo and several headlines, including 'Dozenaka jardura Gabonetako programetara' and 'Amoia Aldai Emakume Master Cup-eko txapelketa Lau eta Erdiko Txapelketan'. On the right, the text 'IPINI ZURE IRAGARKIA BEGITUN' is written in large, bold, white letters with a hand-drawn, sketchy style. At the bottom right, contact information is provided: 'Informazioa: 649 979 115 eta inigoirua@begitu.eus'.

KOMIKIA

Iman Olatu



IRAGARKI LABURRAK

DANERIK

LONJEA ALOKATZEN DOT

Igorreko Olabari auzoan dagoan lonja bat alokatzen dot kontratupean. Informazioa, 647 239 449 telefonon.

GARAJEA ALOKATZEN DOT

Alkarren ondoan dagoan garaje bi alokatzen dira Igorreko Elexalde kaleko 47 zenbakian, On Egin-en ondoan. Biak batera ala banaka alokatu daitezke. Batera egin ezkerre prezioa egingo da. Interesdunek deitu 615 723 646 telefonora.

GARAJE PARTZELEA ALOKAIRUAN

Garaje partzela bat alokatzen da Igorren, anbulategi atzeko parkean. Interesatuak 629 307 400 telefonora deitu.

GARAJEA ALOKATZEN DOT

Garajea alokatzen da Igorreko Elexalde kaleko 56 zenbakian. Eleiza aurrean. Telefonoa: 94 631 60 22.

YOGA ETA COACHING

Gorputza indartu eta flexibilizatu, zure amesetako etorkizuna sortu, zure barne bakea topatu eta bizitza orekatu. Online klaseak. Kontakua: 672 873 452 (Nerea).

BASERRIA SALTZEAN DA

Zeberion 750 m²ko baserrietxea salduten

da inguruan landa zabalagaz. Interesdunek deitu 609 457 016 telefonora.

LANA

FRANTSESEKO KLASEAK ONLINE

Adin eta maila guztiak. Bakarka zein taldeka. Frantses filologian graduatua. Interesdunek deitu: 610 374 854 (Nerea).

KLASE PARTIKULARRAK EMON ETA UMEAK ZAINTZEAN DODAZ

Lehen Hezkuntzakoei ingeles eta beste ikasgaietako eskola partikularrak emoten deutesdaz. C1 titulua daukat. Umeak jagoteko be prest nago. Interesdunek deitu: 650 842 292.

ALEMAN ESKOLAK EMOTEN DIRA

Esperientzia luzeko alemaniarrek adin eta maila guztietako aleman eskolak emoten ditu, online eta aurrez aurre. Interesdunek deitu 610 863 369 telefonora.

Zeozter saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat begitu@begitu.eus helbidera. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa



Zenbaki honetako saridunak:

1

Garena txakolinaren 3 botila.

Ibon Ozerin (Igorre)



2

Areatza Musik & Beer jaialdiko antolakuntzeak emondako kamiseta bana.

Beatriz Arza (Igorre)
Amaia Espinosa (Artea)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara.

BEGITUK 22 urte eta ehundaka lagun.

94 673 90 13/649 979 115 | www.begitu.eus | begitu@begitu.eus

BIXER TABERNA
Beko kalea, 2 - Tel.: 94 631 73 65 - VILLARO

NAIARA Hertz Klinika
Lehendakari Agirre, 19
48140 Igorre
94 631 52 26

BIZARGINAK
1976
BIZARGINTZA-ILEAPAINDEGIA
94 607 78 33
LEHENDAKARI AGIRRE 9, IGORRE

ASEGURUAK: **ZUZENBIDE**
AUTOAK ETXEBIZITZAK
AHOLKULARITZA: LAN ZUZENBIDEA ZERGAK KONTABILITATEA
DENDAK ISTRIPUAK BIZITZA...
Tlf. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxa 94 612 11 96
Sabino Arana 3. behea - Igorre (Bizkaia)

KIRRU
ILEAPAINDEGIA
ROSANA eta ROSER
SABINO ARANA 38
IGORRE
Tlf. 94 631 92 00

begitu
eus

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3. 3a
Igorre 48140 Bizkaia
Tel.: 94-673-70-87
609-79-40-54

ZEKUTZE
JATETXEA
Sabino Arana, 24
48140 IGORRE - Bizkaia
Tel.: 94 631 52 83
zikutzekutze@hotmail.com

begitu
eus



DOHAINIK

GAITASUN DIGITALA

ONLINE KOMUNIKAZIOA, KUDEAKETA ETA LANKIDETZA	
Komunikaziorako eta kudeaketarako oinarritzko tresnak, mugikorreko informazioa, modu seguruan partekatzea, online lankidetzeta...	8 ordu
EDUKI DIGITALAK SORTZEA ETA SAREKO SEGURTASUNA	
Irudi, bideo eta audio formatuak, sorkuntza eta edizioa, partekatzeko kanalak, sareko segurtasuna...	8 ordu

Ikastaroak **URRIAN** eta **AZAROAN** emango dira, egunean 2 orduko saioetan.
Goizez (10:00-12:00) edo arratsaldez (15:30-17:30) egin daiteke

55 urtetik gorakoek izango dute lehentasuna

Izena ematea, irailaren 2tik aurrera. Deitu eta informazioa emango dizugu!

Urritxe auzunea, z/g - Tfno: **688 665 300 - 946 730 251 - 48340 AMOREBIETA-ETXANO** (Bizkaja) - e-mail: maranburu@fpzornotza.com - www.fpzornotzalh.eus

Financiado por la Unión Europea
NextGenerationEU

GOBIERNO DE ESPAÑA
MINISTERIO DE EDUCACIÓN Y FORMACIÓN PROFESIONAL

Plan de Recuperación,
Transformación y Resiliencia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

BAIETZ 30 LAGUN BARRI EGIN!

2024AN EGIN ZAITEZ BEGITU-LAGUN! BEGITU-LAGUN EGITEAK SARIA DAUKA!

Begitu aldizkariaren asmoa eten barik hobetzea da, beti be Arratia-Ubide-Zeberio inguruko euskerazko aldizkaria euki daigun. Baina horretarako baliabide ekonomikoak indartu behar doguz, Begitu bere buruaren jaube izan eta etorkizunari bermez eutsi ahal izateko. Horretarako **2024an egin zaitez Begitu-lagun!** kanpaina abiatu dau Begitu aldizkaria argitaratzen dauan Zertu Kultur Elkarteak, eta helburua argia da:

Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekari euskalduna babestuko dozu?



Oíndino Begitu-laguna ez bazara, eta Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekaria babestu gura badozu, bete egizu beheko formularioa eta bialdu honako helbidera:

Zertu Kultur Elkarte Herriko plaza 24. 48142 Artea.

✂

Izen-abizenak: _____

Helbidea: _____

Telefonoa: _____ Helbide elektronikoa: _____

Kontu korrontearen zenbakia: ES _____

Aukeratu urteko kuotea: 40€ 60€ 80€

*Gainera Begituren produktu honeek helduko jatzuz etxera doban.

begitu.eus

Edo e-mailez, bialdu datuok: begitu@begitu.eus helbidera.